

EKOART 2016/2017

aniztasunak aberasten gaitu

Ikastolart proiektua 2010ean sortu zen. Gure Ikastola "Eskola Iraunkorren Sarean" sartu zenetik proiektuak Ekoart izena hartu zuen. Aurtengoa 6. edizioa izango da. Ikastolako ikasle guztiek parte hartzen dute, Haur Hezkuntzatik hasita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza arte.

Ekoart-ek gelan aurki daitezkeen birziklatutako materialez sortutako artelanak plazaratzea du helburu. Hau oinarri hartuta, proiektu honek ondorengo aspektuak ere lantzeko aukera ematen digu: ikasleen sormena, talde lana, besteen lanekiko eta inguruarekiko errespetua, mugimendu artistikoak, artista desberdinak...

Ikaskuntzan oinarrizkotzat dugun BIZIKIDETZA aurtengo egitasmoaren ardatza izango da. Gure Ikastola testuinguru interesgarriada bizikidetzan sakontzeko; izan ere, pertsona desberdinak erlazionatzen gara, ezaugarri, gaitasun pertsonal, izaera, janzkera, sentitzeko modu, ikasteko era eta harremanak izateko modu desberdinak ditugula kontuan hartuta. Honenbestez, pertsona ororen garapenean ardatza dugu parekoa onartzen ikastea, ingurukoekin harremanak izaten ikastea baita desberdintasunak errespetatzea ere.

Modu horretan, hori lortze aldera, jarrerekin lan egin behar dugu: ohiko adierazpenetan diskriminazioa saihestuz, gu bezalakoak ez direnei buruz sortzen ditugun aurreiritziak alboratuz eta portaerak egokituz.

Asmo horrekin, aurten **HEZKIDETZA** jorratzen duten **IPUINAK** hartu nahi izan ditugu, denon artean lantzeko. Hiru ipuin aukeratu ditugu eta atsegin handiz aurkezten dizkizuegu: DERRIGORREZ MUSURIK EZ, TXIMELETA BELARRIAK ETA MUNSTRO ARROSA.

Hauetako ipuin bakoitzak mezu garrantzitsu bat helarazi nahi digu:

DERRIGORREZ MUSURIK EZ: Pertsona guztiok EZETZ esateko eskubidea dugu, hurrek ere bai.

TXIMELETA BELARRIAK: Gure desberdintasunak balioetsiz eta geure burua den bezalako onartuz, gure nortasuna indartzen dugu. Hori da lehenengo pausua iseka egiten duten horiei aurre egiteko.

MUNSTRO ARROSA: Besteak onartzen eta ezberdintasunen aldeko apustua eginez gure bizitza hobea eta aberatsagoa izango da.

EKOART 2016/2017

la diversidad nos enriquece

El proyecto Ikastolart surgió en el año 2010. Desde que la Ikastola ingresó en la Red de Escuelas Sostenibles, tomó como nombre Ekoart. Este año celebraremos la 6ª edición. Participa todo el alumnado de la Ikastola, desde Educación Infantil a Educación Secundaria Obligatoria.

El objetivo de Ekoart es la creación de obras de arte utilizando material reciclado del que disponemos en las aulas. Teniendo esto como referencia, este proyecto nos da la oportunidad de trabajar también los siguientes aspectos: la creatividad del alumnado, el trabajo en equipo, respeto al medio ambiente y al trabajo de los demás compañeros, conocimiento de diversos artistas y corrientes artísticas...

El eje del proyecto de este año es la CONVIVENCIA, base de nuestro sistema educativo. Nuestra Ikastola es un medio muy interesante para profundizar en la convivencia; de hecho, nos relacionamos personas muy diferentes, con diversas características y capacidades, distinto carácter, forma de vestir, de sentir, de aprender, diversas maneras de relacionarse... Por tanto, el eje en el desarrollo de cualquier persona es aprender a aceptar al otro, relacionarse con los demás y respetar al diferente.

Para poder conseguirlo, tenemos que trabajar una serie de actitudes: observar y evitar la discriminación que se da en algunas expresiones de uso habitual; apartar los prejuicios que creamos alrededor de las personas que no son como nosotros y adecuar comportamientos.

Con este propósito, este año hemos elegido CUENTOS que tratan la COEDUCACIÓN para trabajarlos entre todos. Hemos seleccionado tres cuentos que os presentamos con mucho gusto: NI UN BESITO A LA FUERZA, OREJAS DE MARIPOSA Y MONSTRUO ROSA.

Cada uno de estos cuentos nos presenta un importante mensaje:

NI UN BESITO A LA FUERZA: Todas las personas tenemos derecho a decir NO, los niños y niñas también.

OREJAS DE MARIPOSA: Reconociendo nuestras diferencias y aceptándonos tal como somos, nos hacemos más fuertes. Este es el primer paso para hacer frente a los que se burlan.

MONSTRUO ROSA: Aceptando a los demás y apostando por la diversidad conseguiremos una vida más rica y mejor